

GUGGENHEIM BILBAO

PRENTSA-OHARRA

Guggenheim Bilbao Museoak eta Jenny Holzerrek Museoaren Bildumari gehituko zaion errealitate areagotuko obra bat aurkezten dute

Guggenheim Bilbao Museoak *LIKE BEAUTY IN FLAMES* aurkezten du, Jenny Holzer artista estatubatuar ospetsuaren obra berria, errealitate areagotuaren (EA) baliabidera eramaten duena Holzerrek hizkuntzan oinarrituta egiten duen arte berezia. Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumarako propio sortutako artelan paregabea mugikorrerako diseinatutako berariazko aplikazio baten bidez bistaratzen da, eta hiru esperientzia desberdin aurkezten ditu EA teknologia baliatuta: kokapen zehatzeko bi obra, Guggenheim Bilbao Museoaren arkitekturarekin elkarrizketan; eta hirugarren bat, munduko edozein lekutatik aktibatzeko modukoa. *LIKE BEAUTY IN FLAMES* teknologia berriaz baliatzen da Holzerren praktika gailenenari jarraitasuna emateko: hausnarketara eramaten gaituzten testuak espazio publikoan kokatzea, modu demokratiko eta irisgarrian.

Hemendik aurrera, Holzerren errotulu argidunen EA bertsioa ikusiko dugu Museoko Atrio nagusian barrena, kurbatuz eta espiralean biratuz doan zutabe batean *Truismoak* agertu ahala, ingelesez, gaztelaniaz, euskaraz eta frantsesez agertu ere. Museoko hiru solairuetako bakoitzak esperientzia desberdin bat eskaintzen du, LEDak eraikinaren arkitekturarekin duen interakzioa aldatu egiten baita behatzailearen ikuspuntuaren arabera.

Kanpoaldean, Museoaren inguruan kokatutako bost gunetatik datozen EA proiektzioak fatxadaren gainean agertuko dira, Holzerrek bere *Zera deskribaezina* atzera begirako erakusketarako sortutako *For Bilbao* (2019) obra monumentalaren oroipen birtuala balira bezala. Artistak EA proiektzioetarako aukeratu dituen testuak beste autore batzuenak dira. Izan ere, obraren titulua, *LIKE BEAUTY IN FLAMES*, Anna Świrszczyńska idazle poloniarren “Edertasuna hil egiten da” (ingelesez, “Beauty Dies”) poematik hartua da; Holzerrek ikuskizun immaterial bihurtutako testu ugarietatik bat da hura ere.

Obraren azken osagaiak aukera ematen die erabiltzaileei, dauden tokian daudela, Holzerren *Truismoak* espazioan nola itxuratzen diren ikusteko. Aukera berri horrek irudikatu egiten du Holzerren praktikak bere ibilbide osoan zehar osatu duen muina: hitza espazio publikoan kokatzea, hausnarketari eta kontenplazioari bide emateko.

Teknologia artearen zerbitzura

LIKE BEAUTY IN FLAMES, 2021

Errealitate areagotuko aplikazioa



GUGGENHEIM BILBAO

Artelan immertsibo eta dinamiko hori mugikorrerako aplikazio mugikor baten bidez hezurmamitzen da, zeinak EA erabiltzen duen hiru esperientzia birtualetarako sarbide mugagabea eskaintzeko. Errealitate areagotuari, irudiak antzemateko punta-puntako teknologiari, 3Dko posizionamendu espazialari eta abangoardiako teknologia erabilia diseinatutako grafikoei esker, erabiltzaileek aukera dute Museoko Atrioan kokatutako LED obraren EA bertsioa ikusteko, eta Holzerren gaueko proiektzioak birsortzeko aukera ere badute beren gailu mugikorreko geolokalizagailuaren eta giroskopioaren laguntzarekin; horien bidez, gailuak Museoaren kanpoaldeko guneko desberdinetara bideratuko ditu. Teknologia digitala eta mundu erreala uztartuz, mugikorrerako aplikazio berritzaile horrek —Londresko Holition agentzia digitalak garatua— erabiltzaileen gailu mugikorretara eramaten du Holzerren obra.

Guggenheim Bilbao Museoak arteari aplikatutako teknologia berriekin hartua duen konpromisoaren erakusgarri da *LIKE BEAUTY IN FLAMES*, eta hiru urteko plan baten hasiera ere bada. Plan horren baitan proiektu aitzindari gehiago aurkeztuko dira, teknologia artelanen funtsezko elementu izango dutenak.

Jenny Holzer

Jenny Holzerren obra hasieratik egon da Guggenheim Bilbao Museoan presente, artistaren berealdiko *Bilborako instalazioa* (*Installation for Bilbao*, 1997) bertan kokatu zenetik. Lan hori eraikinaren inauguraziorako enkargua izan zen, eta leku nabarmena hartzen du Atrioan; hamabi metrotik gorako altuera duten bederatzi zutabe argidunek osatzen dute. Bildumari artistak sortutako harrizko bost banku ere gehitu zaizkio (inskripzio desberdindunak), eta *Zera deskribaezina* erakusketarako sortutako piezetatik bi: LED errotulu bertikal bat, *Gerra bat egon zen* (*There Was a War*) izenekoa, eta Frank Gehryren eraikinaren gaineko argi-proiektzio zirrargarria, *For Bilbao* titulua duena.

Lau hamarkada baino gehiagotan idatzizko hitzarekin esperimentatzen eta bere lana erakusteko estrategiak etengabe arakatzen jardun du Holzerrek. Testuak —berak sortuak batzuk eta miresten dituen idazleen aipuak besteak— letra lodiz ageri dira, zuzenean iristen zaizkigun tipografiekin. 1996an hitz argidunak paisaiaren eta arkitekturaren gainean proiektatzen hasi zen Holzer; graffiti efimero antzeko bat dira, bere hasierako obrak gogora ekartzen dituztenak, New Yorkeko kaleetan bere *Truismoekin* (*Truisms*) jartzen kartel anonimo haiek, hain zuzen. *Truismo* horiek esaldi bakarreko 250 adierazpenek osatzen dituzte, eta askotariko erantzunak pizten dituzten ahotsen eta ikuspegiaren multzo bat eratzen dute. Artistari beti interesatu izan zaio komunikaziorako modu eta bide ofizialak bere egitea, eta horrela aurkezten ditu mezu iradokitzaileak errotulu elektronikoetan, brontzezko plaketan zein harrizko bankuetan, baita kamisetetan, preserbatiboen bilgarrietan eta arkatzetan ere. Bere obrak aspaldian hartu du leku nabarmena arte publikoaren baitan, neurri handi batean aldi baterako proposamenei eta eskala handiko proiektzioei esker, edo bere testuak kamioi ibiltarietan bistaratzen dituzten errotulu digitalei esker. Holzerrek adierazteko duen ahalmen horrek ausardiaz jarraitzen du zalaparta egiten, irakurtzearen ekintza soilaren bitartez behatzaileen inplikazioa eraginez.

GUGGENHEIM BILBAO

Loturiko jarduerak

Artistarekin solasean (ekainak 2)

Obra berriaren inguruko elkarrizketa, *streaming* bidez, Jenny Holzer artistaren eta Guggenheim Bilbao Museoen Bildumako arte-arduradun Lekha Hileman Waitollerren artean.

Sormen-tailerra: Jenny Holzer Goes Digital (maiatzak 25 eta 27)

Tailer honetan, parte-hartzaileek Aitziber Aguirre pedagogoaren eskutik ezagutu ahalko dute Jenny Holzer artistaren ibilbidea eta haren azken obra, *LIKE BEAUTY IN FLAMES*.

Raid Live & Online! EA formatu digitalean (ekainak 19)

Elkarraldia, *online* eta zuzenean, *LIKE BEAUTY IN FLAMES* lanaren gako kontzeptualak eta teknikoak ezagutzeko, Informazioaren Teknologietako Zuzendariorde Luis Pablo Elvirarekin, eta Museoko Hezkuntzako Koordinatzaile Luz Magureguirekin.

Bestelako errekurtsoak:

[Irudiak](#)

Bideoak:

- [Jenny Holzerren agurra](#) (1:06 min)
- [LIKE BEAUTY IN FLAMES, Jenny Holzer](#) (1:05 min)

[Web](#)

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketing Arloa
Tel: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus